

## ARTIKULUA IRAKURRI ETA GALDERAK ERANTZUN *EL PAÍS*, Catalunyako auzia

- 1. Aipatu iturria (nondik dator informazioa?).** Informazio iturria Espainiar estatuko *El País* egunkaria da.
- 2. Identifikatu inperioa(k)/inperialismoa(k).** Batetik, Britainia Handiak amerikar kolonietan 1774an sortutako inperioa aipatzen da testua. Bestetik, Espainiak (1898an independizatuko zen) Cuban, sortutakoa.
- 3. Identifikatu nazionalismoak.** Kubatarra, Estatu Batuarra eta Kataluniarra.
- 4. Identifikatu nazionalismoen ezaugarriak.** Jatorria, hizkuntza, kultura eta sinbologia dira testu honetan argien ikusten direnak. Jatorria, kolonialismoaren ondorengo estratuaren independentzia saiakeretan nabari da; hizkuntza, Katalunian hitz egiten den aldaera erromanikoan; kultura, kolonia bakoitzaren ohitura eta usadioetan; eta sinbologia, bandera eta manifestazioetako nahiz Parlamenteko aldarri bereizgarrietan, besteak beste izarrek masoientzako zuten esanahiean.
- 5. Lotu Inperialismoaren gaian zehar ikusitakoarekin.** Europar herrialde ahaltuenei, Asian eta Afrikan Erdi Aroaz geroztik izandako kolonietan, herriaren jatorria eta nahia ez errespetatzea egotzi izan zitzaizen. Horregatik, eta beren kultura eta usadioak gainontzeko herrialdeetan inposatzeko saiakeragatik, herrien matxinadak eta europeizatuak ez izateko independentzia saiakerak guztiz ulergarriak dira. Baina independentzia edota aldarri prozesu orok du sinbologia aldetik bereizgarri izateko beharra, piktorikoki, edo bisualki behintzat, ikusia izateko beharra. Hortik dator sinbologiaren beharra kolonien independentzia prozesuetan zehar, eta hortik dator ere *esteladaren* jatorria hortaz.
- 6. Zer iruditu zaizu artikulua? Iritzi kritikoa (inportanteena).** Artikulua interesgarria iruditu zait, batez ere, egun erabiltzen ditugun hainbat aldarriek duten bilakaera historiakoa ulertzearen garrantziaz kontziente izateko garaia heldu dela uste dudalako. Uste dut ezin dugula pentsatu berritzaileak edo “iraultzaileak” garelako baldin eta ez badugu bilakaera historikoa aztertu; ezin dugula *esteladaren* aldarria egin Kataluniaren aldeko manifestazioetan, baldin eta lerro horizontalek dituzten koloreen esanahia ulertzen ez badugu, edo triangelu urdinarena, edo izar zuria. Berdina diot Euskal Herrirako; ikurrinaren hiruki gorriek eta marra berde nahiz zuriek duten esanahia ez jakiteak, ikurrina zentzurik gabe astintzea dakarrela uste dut. Plazaratu zenean zuen sinbologiak eta gaur egungoak bat egiten ez duten arren, uste dut garrantzitsua dela jakitea aldatuaren zergatia, koloreen zergatia, sortu zuten pertsonen pentsaera... bat ez egin arren, horrek Euskal Herriko historiara pausu bat bada ere gerturatzeko gaituelako. Edota bestela esanda, testuan *estelada* desberdinen arteko aldea ezin hobeto azaltzen duen moduan, uste dut gu ere kontziente izan behar garelako ikurrina desberdinen konotazioez: soila, Nafarroako kateak daramatzana, lurralde historikoko harmarriak daramatzana... Hori iruditzen zait “mundu garaikidea” ulertzeko oinarri garrantzitsuetako bat; gure historia ulertzeko aukera paregabea baitirudit, egun ohikoak ditugun hainbat elementuren bilakaera historikoaren ezagutza barreiatzea.